

# Umeen eskubideak



LHko 6.maila

**Fernando Cuadrado**  
*2012ko urtarilean berrikusia*

## Lan-eskema

**Irakasgaia:** Ingurunearen ezagutza

**Gaia:** Umeen eskubideak

**Maila:** Lehen Hezkuntzako 6. maila

**Saio kopurua:** 6 saio

### Proposamenaren testuingurua:

Gure adina edozein dela ere, pertsona guztiok ditugu eskubideak. Herritarrak garen aldetik, eskubideen jabe gara, eta, beraz, horiek defendatu behar ditugu. Eskubideek eurek bermatzen digute errespetua, aniztasuna, autoestimua..., eta eskubideak errespetatuta, horiek indartu egiten dira.

Herritar izateak norberaren eskubideak defendatzeko eta aldarrikatzeko ahalmena dakar, eta, horretarako, eskubideak zein diren jakin behar da. Kontzientzia hori txikitatik sustatu behar da, eta umeek jakitun izan behar dute eurek ere eskubideak dituztela, herritar aktiboak eta kritikoak izateko.

### Landuko diren oinarrizko gaitasunak

1. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna
2. Ikasten ikasteko gaitasuna: 2., 7. eta 8. jarduerak
3. Matematikarako gaitasuna: 6. eta 4. jarduerak
4. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 1., 2., 4., 5., 7. eta 8. jarduerak
5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna: 5., 6., 7. eta 8. jarduerak
6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. jarduerak
7. Giza eta arte-kulturarako gaitasuna: 4. eta 5., jarduerak
8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 5., 7. eta 8. jarduerak

### Helburu didaktikoak:

1. Herritarrok eskubideak ditugula barneratzea.
2. Bizilekua eta jatorria zein den, ezberdinak garelako ohartzea.
3. Alderdi politikoaren funtzioak zein diren jakitea.
4. Aplikazio informatiko egokien bidez, aurkezpenak egitea.
5. Kazetaritza-testua egitea.

### Edukiak:

- Umeen eskubideen laburpena
- Testu mota desberdinak (grafikoak, kazetaritzakoa -berria-, informatiboa, poetikoa)
- Umeen esparruan izaten diren eskubideen urraketak
- Irakurketa kritikoak
- Jarrera aktiboak eta enpatikoak

**Jardueren sekuentzia:**

- a) Planifikatzea
  - 1. Denok desberdin, baina denok berdin
  - 2. Gure eskubideak interpretatzen.
  - 3. Eskubideak identifikatzen.
  
- b) Gauzatzea
  - 4. Egoerak alderatzen.
  - 5. Gu kazetari: eskubide urraketak salatzen.
  - 6. Eskubide-urraketa bat aztertzen.
  
- c) Erabiltzea
  - 7. Eskubideen berri ematen.
  - 8. Konponbideak proposatzen.

**Ebaluazioa:**

*Erakusleak:*

- 1. Ea ahalmena duen eskubideak zerrendatzeko.
- 2. Ea identifikatzen dituen eskubideen urraketak.
- 3. Ea gai den informazioa aurkitzeko, prozesatzeko eta eraldatzeko.
- 4. Ea gai den ondorioak ateratzeko, egoerak aztertuta.

*Tresnak:*

**1.1.1 A) Sekuentzian hauexek proposatzen dira:**

- 3., 7. eta 8. jarduerak

**1.1.2 B) Irakasleen behaketatik lor daitezkeenak:**

Ikasleen jarrerak eta ekarpenak, banakakoak zein taldekoak

## Umeen eskubideak

### 1. jarduera. Denok desberdin, baina denok berdin

Irakur ezazu olerki hau:

#### 1.1.2.1 OLERKIA

*Ez dio axola neska ala mutila zaren, beltza ala zuria zaren,  
nire hizkuntza ondo ulertzen duzun eta nik zurea.  
Ez dio axola nondik zatozen,  
edo non jaioa zaren.  
Ez dio axola zure gurasoak  
lehendik hemen bizi izan ziren.  
Ez dio axola guk biok  
sinesmen ezberdinak ditugun.  
Hortik ez dio ezerk axola.  
Ez baititugu ezberdintasunak  
diskriminazio bilakaraziko.  
Ezberdintasunak  
aberasgarri zaizkigulako.  
Gure patua  
elkarrekin bizitzea delako.  
Eta elkar ulertuko dugu.  
Ekarri bosteko hori.  
Elkar ulertuko dugu.*



Erantzun ezazu:

- Nolakoak izan daitezke poesia horretan agertzen diren ume bi horiek?

Badirudi biak desberdinak direla. Asma dezagun horietako bat nolakoa den (aukeratu neska ala mutila den, non jaio den, zenbat urte dituen, non jaio ziren haren gurasoak, zelakoa den haren gorputza,...)

- Badago ikasgelan, auzoan... zure modukoa ez denik? Zu desberdina al zara besteen aldean?
- Bada munduan ume guztiak “berdin” egiten gaituen zerbait: gure eskubideak.

*Eskubide hitzak honako hau esan nahi du:*

*Pertsona guztiei –beren adina edozein dela ere- aitortzen zaizkien oinarrizko balioak eta ahalmenak. Eskubideak ezin zaizkio inori ukatu; zaindu eta betearazi behar dira.*

- Zuek umeok, ba al duzue eskubiderik? Badakizue zein diren? Ikasgelan, horiei buruz hitz egingo dugu, eta zerrenda bat osatuko dugu arbelean zuentzat ezagunak direnekin.
- Munduko ume guztiek eskubide berberak dituztela uste duzue? Ume guztiei aitortzen zaizkie eskubide berberak? Edo, uste duzu ume batzuk leku jakin batean jaio direlako eskubide gutxiago dutela?

## 2. jarduera. Gure eskubideak interpretatzen.

Hona hemen aurreko jardueran aipatu ditugun eskubideak:

Munduko ume orok honako eskubide hauek ditugu:

<p><b>1</b> Gure eskubide guztiak aitortu diezazkigutela, inolako salbuespenik edo bereizkeriarik gabe.</p>	<p><b>6</b> Maitatuak eta ulertuak izan behar dugu, eta osoki heziko bagara bitarteko egokiak eduki.</p>
<p><b>2</b> Babes berezia jaso behar dugu, osasunez eta normaltasunez hazi eta garatu ahal izateko.</p>	<p><b>7</b> Heziketa dohain jasotzeko eskubidea dugu, eta aisialdiaz eta jolas-jardueraz gozatzeko.</p>
<p><b>3</b> Bizitza, familia, izena eta nazionalitatea izateko eskubidea dugu.</p>	<p><b>8</b> Gure iritziak adierazteko eta edonork horiek kontuan hartzeko eskubidea dugu.</p>
<p><b>4</b> Elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izan behar ditugu osasuntsu hazi ahal izateko.</p>	<p><b>9</b> Bazter uzte, gogorkeria eta zapalkuntzen kontrako babesa behar dugu.</p>
<p><b>5</b> Eragozpen fisiko edo psikikorik izanez gero, arreta berezia jasotzeko eskubidea dugu.</p>	<p><b>10</b> Bakean, tolerantzian, herrien arteko adiskidetasunean eta naturarekiko begirunean heziak izateko eskubidea dugu.</p>

Umeen eskubideen laburpena

Kopiatu itzazu eskubideak, eta azaldu ezazu zer esan nahi duten. Hiztegiaren hitzen bat bilatu behar baduzu, egin ezazu. Azaldu ezazu eskubide bakoitza zure hitzekin:

1-  
 .....  
 .....  
 .....

2-  
 .....  
 .....  
 .....

3-

.....  
.....  
.....

4-

.....  
.....  
.....

5-

.....  
.....  
.....

6-

.....  
.....  
.....

7-

.....  
.....  
.....

8-

.....  
.....  
.....

9-

.....  
.....  
.....

10-

.....  
.....  
.....

### 3. jarduera. Eskubideak identifikatzen.

- Esan ezazu marrazki/argazki bakoitzean zer ikusten den, eta lotu argazki/marrazki bakoitza ondoren zehazten diren eskubideetako batekin. Hori egiteko, har ezazu kontuan eskubidea betetzen ala urratzen den.

1. **Berdintasuna:** Umeok eskubidea dugu, guztiok berdinak garela aitortzeko, bereizkeriarik jasan gabe.

2. **Babesa:** Umeok eskubidea dugu, legearen babesa izateko, eta, horrela, osasuntsu eta aske garatu eta hazteko (gure auzoa, gure herria, gure mundua babestua izateko).

3. **Nortasuna:** Umeok eskubidea dugu, izen bat eta herritartasun bat izateko, gu geu izaten hasteko.

4. **Bizi-kalitatea:** Umeok eskubidea dugu, elikadura, etxebizitza eta osasun-laguntza izateko.

5. **Integrazioa:** "Berdinak eta ezberdinak gara". Umeok eskubidea dugu, buruko eta gorputzeko ezintasunak direla-eta, arreta eta tratamendu zehatzak jasotzeko.

6. **Maitasuna:** Umeok eskubidea dugu, maitatuak eta babestuak izateko, eta gurasoek eta familiak izan behar dute, lehenik eta behin, horren ardura.

7. **Hezkuntza eta jolasa:** Umeok eskubidea dugu, pentsatzen, jolasten, hitz egiten eta gozatzen ikasteko.

8. **Laguntza:** Umeok eskubidea dugu, babesa eta laguntza jasotzeko, hala behar dugunean.

9. **Salaketa:** Umeok eskubidea dugu, baztertuak ez izateko, ankerkeriarik, salerosketarik, esplotaziorik, tratu txarrik, umilaziorik eta, ez jasateko.

10. **Elkartasuna:** Umeok eskubidea dugu, honako balio hauetan oinarritutako heziketa izateko: tolerantzia, elkarrenganako errespetuan, bakean eta anaitasunean.





ura, Gizarte et

LHko 6.maila

➤ Irudi horietan lau eskubide falta dira. Badakizu zein diren? Idatz itzazu.

1-

.....  
.....

2-

.....  
.....

3-

.....  
.....

4-

.....  
.....

#### 4. jarduera. Egoerak alderatzen.

4.1. Irakur ezazu arretaz Sakina izeneko neska nigeriarrak idatzitako testua. Gero, idatz ezazu antzeko testu bat, zure bizimoduaren berri emateko. (Helburua hauxe da: hezkuntza-eskubidea errespetatua ez duen haur baten egoera eta zurea alderatzea.)

##### Sakina (Nigeriarra)



*“Hemen, Tudun Kose-n, eskolara joaten nintzen. Baina, orain, nagusia naiz, eta nire familiak ez dauka dirurik institutua ordaintzeko. Gainera, laster ezkonduko naute. Zenbait mutilek galdetu diote aitari ea ezkondu daitezkeen nirekin, baina oraindik ez dute ezer erabaki. Eguna igarotzen dut etxera ura ekartzen, eta artatxikia ehotzen, jatekoa edukitzeko. Ikusten dudanean beste neska batzuk eskolara joaten direla, poztu egiten naiz eurengatik, miresten ditut”.*

### Zure testua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

jabe izateko ahalmena ematen baitie. Hezkuntzari esker, emakumeek irizpide

argiagoak izan ditzakete erabakiak hartzeko orduan, bai eurei bai seme-alabei dagokienean.

Sakinak hamabi urte ditu, eta Nigeriako ipar-mendebaldean bizi da. Bertako hainbat herritan, hiru neskatik bat baino ez da eskolara joaten, eta askok, pobrezia edo kultur sinesmenak direla medio, eskola utzi behar izaten dute.

Eskolara joaten ez diren haurren artean, % 60 neskak dira

- Portzentaje hori aplikatuta, kalkula ezazu zenbat neska ez liratekeen etorriko gure ikasgelara.

Nigeriari buruzko informazioa bilatu nahi izanez gero, erabil ezazu Wikipedia: <http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala>

## 5. jarduera. Eskubideen urraketaren aurrean, kazetari bihurtuko gara.

Mundua ez da perfektua. Zenbait kasutan, umeen eskubideak ez dira errespetatzen. Horrelako eskubide-urraketa bat salatzeke, zuek, orain, erreportariak izango zarete. Egunkari baterako berri bat idatziko duzue, hain zuzen ere. Hementxe daukazue adibide bat:

### 1.2 Haurren eskubideak protagonista, Lapurdiko ekimen ugartan

Haurren eskubideak dira datozen egunotan Lapurdin egingo diren hainbat ekimenen ardatza: haurrei eskainitako astea izango da Baionan, hilaren 23tik 28ra; eta Ziburuko haurrek panpinak egin dituzte, Unicefi laguntzeko.



Idoia ERASO

Haur Txikien Egunak antolatu dituzte Baionan, zortzigarren urtez, eta Elkarteen etxean haurren gaineko hainbat gai jorratuko dituzte astebetez. Hendaian ere haurren eskubideei buruzko artelan erakusketa antolatu dute, martxoaren 25etik apirilaren 25era. Besteren artean, bertan aurkeztuko dira Ziburuko Piarres Larzabal ikastetxeko haurrek Unicefi eskaintzeko egin dituzten panpinak.

Haur, profesional eta gura- soak elkartuko dira Baionan haurren eskubide eta gaitasunei buruzkoak lantzeko. Haurrak artatzeaz arduratzen diren egiturak ere izango dira, erakunde publikoek gain. Aurtengo gai nagusia, berriz, zirkua izango da.

Berritasun asko eskainiko dituzte aurtun, gehienak zirkuari lotuak, hala nola: Askari sorgindu... eta bio motakoa, Objektu animatuak eta Zirkua herri zoragarria. Haurrentzako produktuen bigarren eskuko azoka ere egingo da lehen aldiz.

Ziburuko haurren oparia

Ziburuko Piarres Larzabal ikastetxeko hogeita hamar gaztetxok Unicefi oparitzeko hemeretzi panpina egin dituzte aisialdiko tailerretan. Nazioarteko erakunde horrek daraman txerto kanpainaren barnean kokatzen da ekimena. Hogei eurotan saltzen den panpina edo «aurpegitxo» bakoitza haur bati txertoa jartzeko baliatuko da.

Lurreko haurren %75ek oinarritzko sei gaixotasunen kontrako txertoa baldin badu ere, laurdena geratzen da txertatzeko. Unicef munduko haurren %30 txertatzeaz arduratzen da, baina falta den %25era ailegatu ahal izateko kanpaina ugari daramatza.

Hainbat herrialdetako haurren egoerari buruzko informazioa jaso dute Piarres Larzabal ikastetxeko haurrek, «aurpegitxoak» egin dituzten tailerrean. Eta haurtzaroaren eskubideak ere jorratu dituzte 10 eta 14 urte artean dituzten ikasleek. Atzo ere, panpinak eskaintzeko ekitaldian, Unicefeko ordezkariak txertoei buruzko dokumental txiki baten emanaldia prestatu zieten.

Ziburuko gaztetxoek ikasitakoaren lekuko da haur bat irudikatzen duen panpina bakoitzak berarekin daraman «nortasun agiria». Gaztetxo bakoitzak panpina sortu baino lehen, irudikatu nahi zuen haurraren jatorria eta egoera definitu zituen. Besteren artean, han ziren Afrikako haurrak, familia bat eskatzen zutenak, bere gurasoak gerran erailak izan direlako, edota osasun eskubidea eskatzen zutenak, hiesak jota daudelako. Haur zuriak ere badira panpinen artean, dirua izanik ere maitasuna eskatzen dutenak, beren gurasoek denborarik eskaintzen ez dietelako.

Lan horiek beste artista eta haurrek egin lanekin batera Hendaiaiko eraikin publikoetan aurkeztuko dira hilaren 25etik apirilaren 25era.

Iturria: "Gara" egunkaria, 2009ko martxoaren 17ko alea

Berriak honako zati hauek izan behar ditu:

- Izenburua: ez ohi du izaten hamabi hitz baino gehiago, eta letra handiz nabarmentzen da.

Adibidea:

## Armadako umeen su-etena

- Sarrera (lead esaten diote kazetariak): laburpen txiki bat izan behar du, eta berriaren elementu garrantzitsuenak bildu behar ditu. Askotan, beste letra mota batez idatzita, edo beste ezaugarri batzuekin nabarmenduta (letra lodiz, etzanez,...) egoten da.

300.000 adingabe inguru talde armatuetan parte hartzera behartzen dituzte mundu osoan. Destin Maliyamungu Euskal Herrian da, egoera latz horren zuzeneko lekukoa

- Berriaren gorputza: berri horren inguruan jasotako informazio guztia idatzi behar da.

Adibidea:

Kongoko Errepublikako Kivu Sur eskualdeko herri batean bizi zen Destin Maliyamungu, Mai Mai taldeko militarrek haren herriko hainbat umerekin batera bahitu zuten arte. Hamalau urte zituen eta bi urte igaro zituen basoan bizitzen. Sarritan borrokaldietan parte hartu izan du. Orain, 17 urte ditu, eta Uvira herrian, jesuitek duten Errefuxiatuen Etxean, mekanika ikasten ari da.

Mai Mai taldeko militarrekin egon zen bitartean Maliyamunguk ez zuen sekula beldurra izan. Hala esan du gutxienez, Euskal Herriko hedabideen aurrean. Haren ondoan eserita dagoen Nicole Nuytsek, baina, sinesgaiztasun keinua egin du hitzok entzun dituenen. Izan ere, Nuytsek haur soldaduen gizarteratzeko eta desmobilizatzeko egitasmoko zuzendaria da Uviran, eta oso gertutik ezagutzen du Kongoko Errepublikako ehunka umek pairatzen duten egoera bortitza.

Horren berri emateko, hain zuzen, Alboan, Amnesty International eta Save the children elkarteek Euskal Herrira ekarri dituzte Maliyamungu eta Nuyts. Haurrak soldadu gisa erabiltzearen kontrako egunaren harira, Euskal Herrian hainbat hitzaldi egingo dituzte haur soldadu ohiak eta horiek gizarteratzeko lanean ari den emakumezkoak.

Maliyamunguk inolako erreparorik gabe azaldu zuen atzo hari gertatutakoa: «Egun batean komandante batzuk nire herrian agertu ziren, eta indarrez eraman gintuzten etxetik. Familiarekin itzuli nahi izan genuen, baina ez ziguten utzi, eta haiekin geratu behar izan ginen. Beste bost umerekin batera eraman ninduten herritik».

Mai Mai talde armatuko kideek bahitu zituzten Kivu Sur herriko umeak. Nuytsek azaldu zuenez, herri armada da Mai Mai taldea, Ruandako milizien kontra, bere lurraldea babesteko sortutakoa. Familia ugari seme-alabak Mai Mai taldean sartzea onartzen dute, baina Maliyamunguren kasuan ez zen hala gertatu, indarrez eraman zuten.

Militarrekin egon zen bitartean, haurrak borrokaldietan parte hartzeaz gainera, beste hainbat lan egin behar izan zituen. «Taldea armatu horretan egon nintzen bitartean bizkartzain gisa aritu nintzen, komandantearen atzetik ibili behar nintzen egun osoan. Gainera, etsaiak iritsi zirenean borrokatzera behartu gintuzten. Lagun bat borrokaldi horretan hil zen», azaldu du Maliyamunguk. Gainera, drogatuta egiten zituztela aitortu du haur soldadu ohiak. «Komandanteek botika batzuk ematen zizkiguten, borrokan babesteko zirela esan ziguten, baina drogak ziren».

Gau batean alde egitea lortu zuten Kivu Sur herriko umeek, Maliyamunguren osabari esker. Haren bitartez, Gobernu Kanpoko Erakunde batekin harremanetan jarri ziren, eta Uvirako egoitzara bidali zituzten. «Hara iritsi ginenean gure bizitza berria nolakoa izango zen azaldu ziguten, eta indar armatuetan bizitako guztia ahaztu behar genuela esan ziguten. Lanbide heziketa edo bestelako ikasketak garatzea eskaini ziguten. Nik mekanikoaren lanbidea hautatu nuen, eta horretan ari naiz ».

Maliyamunguren kasu berean 200dik gora neska mutiko daude Kongoko Errepublikan.

Edozein berrik honako galdera hauei erantzuna eman behar die:

- 1- Nori gertatu zaio?
- 2 - Zer gertatu da?
- 3- Noiz?
- 4- Non?
- 5- Zergatik?
- 6- Nola?

Lehengo paragrafoan berriaren informaziorik garrantzitsuena aipatu behar da. Gero, ondorengo paragrafoetan, gainerako informazio guztia eman behar da, garrantziaren arabera antolatuta: lehenengo, informaziorik garrantzitsuena; eta, bukaeran, zure ustez garrantzi gutxien duena.

- Argazkia eta argazki-oina: argazkiak gaiarekin zer ikusi zuzena izan behar du, eta argazki-oinak argazkian ikusten dena esaldi baten azaldu behar du. Ikus ezazue honako adibide hau:



**Destin Maliyamungu, bi urtean haur soldadu izana Kongoko Errepublikan, atzo, Gasteizen. Juanan Ruiz / Argazki Press**



## Berria idazten.

Zenbait egoeratan urratzen dira umeen eskubideak. Bila itzazu Interneten horrelako egoerak erakusten dituzten argazkiak, eta egoera horiei buruzko informazioa. Honelako egoerak izan daitezke:

- Umeak lanean
- Umeak eskolara joan ezinik
- Umeak soldadu
- Umeak sendatzeko aukerarik gabe
- Umeak txarto elikatuta
- Umeak txaboletan

Egoera horietan oinarrituta, idatz ezazu berria ereduari jarraituz. Gogora ezazu berria ondo antolatzeko, aurreko sei galderak erantzun behar dituzula. Horretarako, daturen bat falta bazaizu, asma dezakezu.

### 6. jarduera. Eskubide baten urraketa kasu bat aztertzen.

Bazenekien futboleko jolasteko erabiltzen ditugun baloi asko lan egiten duten neska-mutikoek josiak direla?

Irakur ezazu testu hau, langintza horren inguruko datuak izateko:

## Baloien iruzurra

1998ko urtarrilean, Manilan mundu mailako manifestazio handi bat egin zen, haurren lan-esplotazioa dela eta. [...]

Zenbatu ezinak ziren pankartak, eta ahaztezinak bertako irudiak. [...]  
Pankarten artean, zera irakur zitekeen:

“Ez dugu eskatzen ez janaririk ez dirurik, justizia baino ez”.

“Haur bat lanean ikusten baduzu, hemengo jendetza guztia gutxi da”

“Haurrak garenean jolasten ez bagara, noiz jolastuko gara?”. [...]

India eta Pakistan herrialdeen artean, “baloien bailara” deituriko lurralde madarikatua eta hila dago; bertan, emakume eta gizon indigenek, eta bereziki hurrek, futbol-baloiak josten dituzte. Ehun mila lagunek josten dituzte baloiak, puntadaz puntada, [...]

Jostunen soldatak hauexek dira: 8 urtetik beherako haurrena, 0,12 € eguneko (12-16 orduko lanaldiagatik); 8 eta 10 urte bitarteko haurrena, 0,24 €, eta, 12 eta 14 urte bitartekoena, 0,30 €. Eta, horrela, gainerakoak[...]

Horacio Sáenz Guerrero. La Vanguardia, 1998-1-21-Pasarteak

- o Testuan ematen den informazioa kontuan hartuta, egin itzazu honako hiru buruketok:

1. Kalkulatu zortzi urtetik beherako ume batek zenbat lanegun egin behar dituen 1,20 €-ko ogi barra bat erosteko.
2. Kalkulatu 10 urteko ume batek zenbat egunetan lan egin behar duen, 300 € balio duen bideo-kontsola bat erosteko.
3. Kalkulatu 12 urteko ume batek zenbat egunetan lan egin behar duen, 500 € balio duen ordenagailu bat erosteko.

- o Bila ezazu interneten haurren laneko esplotazioari buruzko informazioa.

Honako orrialde hauetan bila dezakezu informazioa:

- <http://www.argia.com/argia-astekaria/1854/haurren-lan-esplotazioa>
- <http://haurrenustiapena.blogspot.com/search/label/Umeen%20eskubideen%20zapalkuntza>
- <http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/country/null/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=26578>
- <http://umeentratutxarrak.blogspot.com/2008/11/haurren-esplotazioa.html>
- ....

Informazioa aurkitu eta gero, taldekideekin hasiko zara lanean: bil itzazue zuen ideiak, eta pentsa ezazue zer egin beharko litzatekeen munduan egoera latz eta krudel horretan haur bat ere ez egoteko. Idatz itzazue ideia horiek arbelean, eta azaldu itzazue zuen proposamenak. Kontuan hartu argi eta zuzen hitz egin behar duzuela.

## 7. jarduera. Eskubideen berri ematen.

Lan hau egiten hasi aurretik, bazenuen umeen eskubideen berri?

Uste duzu ume guztiek daukatela horien berri?

Seguru hainbat eta hainbat umek ez dakitela ezer horiei buruz. Gure betebeharra, orain, eskubide horien propaganda egitea izango da.

- ❖ Pentsa ezazu beste herri batera joan zarela, eta konturatu zarela bertako umeek ez dakitela eskubideak dituztela. Umeei hori jakinarazteko, presta ezazu Power Point aurkezpen bat. Ez ahaztu hamar direla azaldu beharreko eskubideak.

- Diapositiba bakoitzean, honako elementu hauek egon behar dute:
  - Eskubidea: izenburu gisa, letra handiz idatzita.
  - Argazki bat: gaiarekin zer ikusia duena (bila ezazu interneten).
  - Azalpen txiki bat.

Aurkezpena, ikasgelan, zuen lagunen aurrean, egin beharko duzue. Aurkezpena egiteko, ez da irakurri behar diapositiban jartzen duena. Horren azalpena egin behar da, diapositibetan jarri duzuenaz laburki hitz eginez.

## 8. jarduera. Konponbideak proposatzen.

“Alderdi politikoak” sortuko ditugu gelan. Bildu zaitetze bost laguneko taldetan, eta pentsa ezazue alderdi politiko bateko kideak zaretela. Zuen eginbeharra da neurriak asmatzea, umeez bidegabekeriarik ez jasateko.

Talde bakoitzak hiru neurri, hiru jarduera, asmatu behar ditu, justiziarik gabeko egoera horiek, umeen eskubideen urraketak, gainditzeko. Gero, egin ezazue horma-irudia, zuen alderdiak proposatzen dituen neurrien propaganda egiteko.

Horma-irudia polito gelditu dadin, honako ezaugarri hauek kontuan hartzea komeniko litzaizueke:

- Alderdiak izen bat izatea.
- Sigladun logotipo bat izatea, horma-irudia alderdiarekin errazago identifikatzeko.
- Kolore bat nabarmena izatea.
- Testu laburrak eta argiak izatea.



Hementxe dituzue, adibide moduan, Txileko zenbait alderdi politikoren logotipoak. Batzuetan siglak agertzen dira, baina, beste batzuetan, ez.

Bilatu Euskal Herriko alderdi politikoen logotipoak Interneten, eta hauekin alderatu.

Beraz, baduzue zer egin:

- Proposamenak pentsatu.
- Izena asmatu.
- Logotipoa egin.
- Zuen proposamenekin horma-irudia egin.